

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK

LATINEZKO AZTERKETA

2008/2009 IKASTURTEA

BI GALDERA-SORTETAKO BATI ERANTZUN

- Ikasleak baimena du hiztegia erabiltzeko, baita horren gramatika eranskina ere.

1. GALDERA-SORTA

Testua: Zesarren etsaiek uretara ateratzeko duten bidea babesten dute

Qua re cognita, crebras¹ stationes² disponunt³ equitum et cohortium alarium⁴

vallumque⁵ ex castris ad aquam ducere incipiunt, ut intra⁶ munitionem et sine timore et sine stationibus² aquari⁷ possent.

Id opus inter se Petreius atque Afranius⁸ partiuntur.

ZESAR, *Guda Zibila I*, 73

¹ creber, crebra, crebrum = *ugari, franko*

² statio, stationis = *zaintza postu*

³ dispono, is, ere = *jarri* (horren subjektua: Zesarren etsaiak)

⁴ cohors alaria, cohortis alariae = *kohorte laguntzaile*

⁵ vallum, i = *hesi*

⁶ intra = akusatiboaren preposizioa = *-en barnean*

⁷ aquor, aquaris, aquari (dep) = *ura hartu*

⁸ Petreius, i / Afranius, i = *Petreio / Afranio*

- 1- Latinezko testu osoaren itzulpena. (5 puntu)
- 2- Egin analisi morfologikoa eta sintaktikoa, **vallumque** dioen tokitik **possent** dioen tokiraino, eta azaldu **ut**-ekin hasten den perpausa. (3 puntu)
- 3- Literatura: garatu bi gai hauetako bat: (2 puntu)
 - a. Oratoria: Zizeron.
 - b. Komedia: Plauto.

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK

LATINEZKO AZTERKETA

2008/2009 IKASTURTEA

BI GALDERA-SORTETAKO BATI ERANTZUN

- Ikasleak baimena du hiztegia erabiltzeko, baita horren gramatika eranskina ere.

2. GALDERA-SORTA

Testua: Ekaitz batek suntsitzen du erromatar flota garailearen zati bat.

Consules cum victrici classe¹ redeuntes² circa³ Siciliam naufragium passi sunt⁴.
et tanta tempestas fuit, ut ex quadringentis sexaginta quattuor navibus tantum⁵
octaginta servari⁶ potuerint. Romani tamen statim⁷ ducentas naves reparaverunt,
neque in aliquo animus his infractus est⁸.

EUTROPIO, *Breviarium*, II, 22

¹ classis, is = *flota*

² redeuntes: redeo = *itzuli (toki batera)*

³ circa = akusatiboaren preposizioa = *-tik hurbil*

⁴ patior, eris, pati, passus sum (dep.) = *sufritu, pairatu*

⁵ tantum = *bakarrik*

⁶ servari = servo 1 aditzaren boz pasiboko infinitiboa = *salbatu*

⁷ statim = *agudo*

⁸ infringo, is, ere, infregi, infractum = *behea jo, gogogabetu*

1- Latinezko testu osoaren itzulpena. (5 puntu)

2- Egin analisi morfologikoa eta sintaktikoa, **Consules** dioen tokitik **potuerint** dioen tokiraino, eta azaldu **ut**-ekin hasten den perpausa. (3 puntu)

3- Literatura : garatu bi gai hauetako bat: (2 puntu)

a. Oratoria: Zizeron.

b. Komedia: Plauto.